

EZAGUTU EZAZU NOR GAREN
ETA ZER EGIN DEZAKEZUN ZUK
OSASUNERAKO ESKUBIDEA
GUZTION ESKURA EGON DADIN

Egin ezazu dohaintza bat
Elkartu zaitez
Izan zaitez partaide

www.lasaludunderecho.es

Ekitatearen erronka Osasunean

Saihesteko moduko
desberdintasun bidegabeak



medicushmani

Bentetako Ingurubidea, 4 - 1º - 31600 Burlata · Nafarroa · Tel. 948 13 15 10
nam@medicushmani.es



medicushmani



medicmundi proiektua

Finantzaketa: Nafarroako Gobernua.
Gizarte Politiketako Departamentua

Lan artistikoa:

Luis Herrero Gargallo Artisau Falla-egilearen Lantegia

- **Bozetoak eta marrazkiak:** Miguel López
- **Eskultorea eta margolaria:** Dora Piles
- **Lantegiko arduraduna:** Carlos Tornador

Dokumentalista: Alejandro Aguirre

Kontakizunak: Maite Pérez Larumbe

Itzulpenak: Itziar Díez de Ultzurrun

Argazkiak: Izaskun Altuna

Diseinu Grafikoa: ZAS Comunicación

medicmundi eskerrak eman nahi dizkie proiektuan parte hartu duten guztiei beren ardura eta laguntzagatik.

Erakusketaren eskulturak Luis Herrero Gargallo artisau falla-egilearen lantegian egin dira, Burrianan (Castelló). Lantegiak 30 urte baino gehiago daramatza fallak egiten eta sari ugari jasotakoa da.

Irudiak egiteko harri-kartoia, beira-zuntza eta zura erabili dira gehienbat.

Zer darabilzu gogoan OSASUNA hitza entzutean? Sasoian egotea, ez erretzea, ariketa egitea, modu osasungarrian jatea...

medicmundin bestelakoak ere darabiltzagu gogoan: edateko ur garbia, jaki elikagarriak eta nahikoak, etxebizitza egokiak, kutsatu gabeko airea. Eta tratu ona, lan ingurune segurua eta soldata duinak, pentsioa hartzeko eskubidea, heziketa eta osasun-zainketa onak jaso ahal izatea... emakume nahiz gizon izan, zeinahi izanda ere norberaren adina, etnia, diru-sarrerak edo sorlekua.

Gogoan darabilgu nork bere osasun-ahalmenik handiena garatu ahal izatea, norberaren gizarte-maila edo bizitokia gorabehera. Horri deitzen baitiogu **EKITATEA OSASUNEAN** eta horren alde egiten dugu egunez egun, osasunean eragina duten desberdintasun sozialak ezabatzeko.

Erakusketa honek desberdintasun horien aurpegiak erakusten dizkigu, eta gogorarazten botere politiko eta ekonomikoen, estatuen eta nazioarteko erakundeen erantzukizuna dela bizi-baldintza duinak sustatzea Lurreko bizilagun guztiontzat.

Defenda dezagun Osasunerako Eskubidea.

Zikoina psikiatrarenean



"Askok ezin dute jasan helmuga aukeratzeko erruletaren zarata, itxaronaldiaren tentsioa, eta estresak jota egoten dira, izuak hartuta... Edonork ez du honetarako balio, gero eta gutxiago gara". Psikiatrak oharrak hartu eta baietz dio buruaz.

Hanka kilometrikoak dibanaren gainean luzatu eta begiak estutu ditu. Lumen hots leun bat zabaldu da gela osoan. Lasaiago, kontakizunari heltzen dio berriz.

"Jendeak uste du azkar egiten dugula bidaia, baina hain nini ttikiekin geldialdi asko egoten da, imajina ezazu, txiza dela, kaka dela, gero negarrez... Izugarri gustatzen zaie gure hegalen artean kuxkurtzea eta den-denek sartzen digute eskua mokoan. Eta, jakina, maitasuna hartzen zaie. Ez da batere samurra halako toki batzuetan utzi behar izatea. Kilometro gutxian ikaragarria baita diferentzia. Pixka bat desbideratu, eta umetxo horien patua alda genezake. Bizitzaldia luzatu, osasuna, hezkuntza, segurtasuna... Pentsamendu hori etortzen zaigu behin eta berriz; amak, ordea, zer? Gurekin fidatu dira beti, ulertzen? Eta halaxe beti, egunak joan eta egunak etorri".

Malko bat lehertu zaio. "Begira, doktore, pilularik ez dut nahi nik. Zer edo zer egin beharra dago".



Gure jaiolekuak eta gure bizilekuak badute eragina jakiak, etxebizitza duin bat, lana eta zerbitzu publiko onak eskuratzeko ditugun aukeretan, eta bizi-itxaropenean aldeak eragiten dituzte hala herrialde batetik bestera nola herrialde baten barnean.

Milioika pertsonak "bizi-urteak galtzen dituzte" **saihesteko moduko arrazoi bidegabeengatik.**

Espekulazioa gizentzen

Aberats izan edo txiro, hortxe dago osasunaren muga, merkatuetatik babesten gaituzten politika publikoak ez daudenean.

Elikagaiak, etxebizitza, hezkuntza eta osasun zerbitzuak funtsezkoak dira politika horietan.

(Mozart entzuten da)

- Speculator Consulting, egun on, zertan lagunduko dizut?
- *Begira, nik espekulatzen hasi nahiko nuke.*
- Ederki. Lehentasunik bai?
- *Ez. Aholkatzerik bazenu...*
- Zer moduz janaria?
- *Osasungarria, denetarik jaten dut baina neurriz.*
- Jakiekin espekulatzeaz ari naiz; interesatuko al litzaizuke?
- *Egin al daiteke?*
- Hoberena da. Errentagarritasuna segurua da. Beste merkatu batzuk zaharkituta daude, hidrokarburoak, higiezinak, zer esanen dizut ba nik...
- *Zuek zarete adituak.*
- Eta, horrexegatik, jakiekin espekulatzeko gomendatzen dizut: garia, artoa, arroza, soia...
- *Oinarrizko jakiak dira horiek. Ez al litzateke hobe produktu garestiagoekin espekulatzea?*
- Aberatsak ergelak direla uste al duzu? Fidatu merkatuarekin.
- *Tonak eta tonak izanen dira.*
- Uzta osoak.
- *Eta non gordeko dut?*
- Etorkizunera begirako merkatua da, uzta biltzen hasi nahi dutenerako, zuk lortuak izanen dituzu nahi zenituen etekinak eta uzta saldua.
- *Eta, gero, zereal horiek jateko saltzen dira?*
- Jakina, zertarako nahiko genituzke hain kopuru handiak? Prezioak gora eramaten ditugu; ez dugu besterik egiten.
- *Negozio garbia.*
- Bai, halako gutxi.

(Mozartek jo eta su segitzen du.)



Lo-kanta egarriz



Obabatxoa ene semetxo
urarekin ametsetan,
zilarrezko ura gogoan
ta minik ez tripetan.

*Haurren munduak kantak ditu eskatzen
kontu saminak helduenak dirade.
Ederra bai benetan,
ur garbia balego herri guztietan*

Obabatxoa ene alabatxo
lo-lo zaude amets betean,
txorrotako ura edanda ere
xomorrerik ez sabelean

*Ipuinen mamua uretan da bizi,
egarriz malkotan eta ezin edan.
Urari agindua nork dio eman
herrien beharra ase ez dezan?*



Adinaren arabera aiseago izaten ditugu halako osasun arazo jakin batzuk. Jendeaz arduratzeko, norberaren premietara egokitu behar dira zainketak eta bizi-baldintzak. Munduan 5 urtetik beherako 800.000 haur hiltzen dira urtean, **saihesteko eta artatzeko** moduko kakeriengatik.

Maitagarrien ipuina ote?



Lina jaio zenean, amaxik esan zuen: *“zure sorbaldak sendoak izan daitezela, zure etxea berotzeko egurra eramateko”*. Aitaxik erantsi: *“zure burua tente ibil dadila, pegarretik tantarik ere ez isurtzeko”*. Aitak, berriz, umeei eutsi, orea oratu, etxea garbitu eta erraztatzeko moduko besoak opatu zizkion.

Izeba ez zen etorri, ez baitzuten gonbidatu, ideia xelebrea zituelako. Hirian egiten zuen lan eta egunkariak irakurtzen zituen. Jaiotzaren berri izan eta liburu bat bidali zuen neskatoarentzat. Amak oilategian ezkutatu zuen. Hamar urte joan ziren. Lina ez zen jada eskolara joaten eta zegokion moduan jokatzeko zuen.

Behin batean, oiloei jaten ematen ari zela, liburua aurkitu zuen E-rra-us-ki-ñe. Berak ere lor zezakeen! Sagu asko zegoen eta baratzean kalabazak hazten ziren. Maitagarriaren zain egonen zen! Arratsalde batez, emakume bat zetorrela ikusi zuen, makila luze bat eskuan. Maitagarria ote? Ez, a ze desilusioa! Izeba zen, zakurrak uxatzen ari zela. Berotuta iritsi zen eta liburu bat eman zion, Heidi. *“Irakurri eta itxaron iezadazu”*.

Linak liluraturik irakurri zuen, hainbesteraino non, amak musu eman eta esan ziolarik *“izebari obeditu”*, eta izebak eskutik heldu eta esan ziolarik *“ikastera, entenditzen?”*, kosta egin zitzaion ulertzea ametsak, batzuetan, errealitate bihurtzen direla.



Neskak: baztertuak politikan, lanean, bezkuntzan, familian eta osasunean.

Mutikoak: gerrara joatera eta “gizonki jokatzera” behartuak.

Mundu zabaleko emakume eta gizon askok bere osasunean **ondorio latz** eta **saihesgarriak** pairatzen dituzte gizarteak esleituriko jokabideengatik.

Etxetik urrun



Botikan ezagutzen dute jada. Bizkarra berriro, min sor bat, edozein mugimendurekin areagotzen dena. Ez dio ibilera galarazten; bai, ordea, nekezago egiten. Pentsatzen du haurrak, han, herrian, ikasten ari direla eta ongi daudela. Horixe da garrantzizkoena. Ez da pentsamendu alaia. Distantzia ez da ona, ezta osasunerako ere. Ez du esaten, ez du inoiz ozenki esan, baina badaki horrek ere zerikusia baduela bere bizkarreko minarekin. Ez da nekea bakarrik.

"Ona litzateke atsedean hartzea egun batzuetan", dio botikariak. Eskerrak ematen dizkio. Bi orduren buruan sartuko da lanera. Ezin huts egin. Ezta bururatu ere. Dosi bikoitza hartuko du.

Edgar du izena, Quevedon jaio zen (Ekuador) eta Alacanten egiten du lan

edo Corina du izena, Timisoaran jaio zen (Errumania) eta Vigon egiten du lan

edo Antonio du izena, Cádizen jaio zen eta Tolosan (Frantzia) egiten du lan

edo Fatoumata du izena, Saint-Louisen jaio zen (Senegal) eta Iruñean egiten du lan

edo Mikel du izena, Iruñean jaio zen eta Dresden (Alemania) egiten du lan

edo Rachida du izena, Fezen jaio zen (Maroko) eta Zaragozan egiten du lan.

Izen asko ditu.



Etorkinek bizimodu latza daramate maite duten pertsonengandik bereiz eta beren ingurunetik urrun. Lan neketsuenak egin ohi dituzte eta maiz jasaten dituzte beren osasunari eragiten dioten lege diskriminatzaileak, **desberdintasun bidegabeak eta saihegarriak** ekartzen dituztenak.

Norberaren kulturari uko egin gabe

Victoria andreak, Nueva Libertad komunitateko emaginak, etortzen ikusi ditu. María andrea egun hauetako batean espero zuen. Haurdunaldian artatu du eta ninia ipurdiz dator. Senarra bi urrats aurrerago dator. Urduri egonen da eta izerditan izanen ditu eskuak. Gizonek ez baitakite halako uneetan non jarri, eta María andreak lan nahikoa badu sabelari bi eskuekin heldu, uzkurdurak jasan eta ibiltzen segitzearekin. Osasun etxera lagunduko ditu. Ilunabarra dator eta luzea da bidea.

- *Mutikoa bada, Kevin deituko da, dio senarrak.*
- *Datorrena datorrela, ongi etor dadila, dio María andreak.*

Victoria andreak uzkurdurei eusten laguntzen dio arnasaldiak markatuz.

Osasun etxean Isabel doktoreak hartu ditu. Ginekologoak eta emaginak mam hizkuntzan artatu eta lasaitu dute María andrea. Goxoki ari zaizkio, dena ongi aterako dela ziurtatu diote. 00:30ean nini baten negarra aditzen da. Kevin da, dio aitak besoetan hartu eta ama ahitu eta zorionsuaren bular gainean jartzean. Victoria andrea eta Isabel doktoreak tapaki koloretsu batekin estali dituzte. Pozik daude. Beste behin, bien arteko koordinazioari esker, mam jatorriko haur guatemalar bat jaio da bere kulturari uko egin gabe.



Ehunka etnia beren herrialdeetan bazterturi bizi dira, botere politikoak edo beste talde etniko batzuek zokoraturik. Ez dira kontuan hartzen ez haien kultura ez haien eskubideak.

medicusmundik osasun zerbitzu publikoen egokitzapen kulturala babesteaz gain, zerbitzuok talde horien bizilekuetara eramaten ere laguntzen du.